

SAGARDOETXEA MUSEOA - MARKETING ETA KOMUNIKAZIO ARDURADUNA -

Sagardun Partzuergoak hautaketa prozesua martxan jarri du 2026ko otsailetik aurrera Sagardoetxea Museoan marketing eta komunikazio arduraduna kontratatzeko. Lanpostua lanaldi osokoa eta aldi baterakoa izango da (6 hilabete).

Lanpostuaren deskribapena:

- Komunikazio planean definitutako kanpainak kudeatzea eta gauzatzea: e-mailing-eko kanpainak, webgunea, sare sozialak, prentsa deialdiak eta oharra, etab.
- Kanpainen emaitzak ebaluatzea eta adierazleen jarraipena egitea.
- Txosten teknikoak idaztea.
- Sagardoetxeako bisita gidatuak egitea beharren arabera.
- Ekitaldien antolaketan laguntzea.
- Sagardoetxeako funtsen (albisteak, dokumentuak, bideoak eta argazkiak) katalogazioa burutzea.

Ezinbesteko baldintzak:

- Hizkuntza-eskakizunak: Euskara 4HE/C2 eta Ingelesa edo Frantsesa B2. Hautagaiek ez badute Euskara 4HE/C2 egiaztagiria, 3HE/C1 egiaztagiria onartuko da.
- Ikasketa-maila: kazetaritza, ikusentzunezkoen komunikazioa, publizitatea/harreman publikoak graduko unibertsitate-titulua edo baliokidea.
- Eskakizun espezifikoak: marketing arloan formakuntza.

Lanpostuaren eskakizunak baloratzeko elkarrizketa egingo da Sagardoetxean.

Baloratu beharreko baldintzak:

- Programa informatikoen ezagutza: Office, Wordpress, InDesign, Photoshop, sare sozialak, Google Analytics...
- Lan esperientzia komunikazioaren alorrean.
- Sagardogintzari buruzko ezagutza izatea.
- Zirkulazio-baimenak: B gidabaimena.

Lanpostuari dagozkion xehetasunak eta **izen emateak** [Lanbiden](#).

Hautagaien harrera amaiera data: 2026/01/09